



Gaur hasiko da Nazioarteko 24. Txotxongilo Jaialdia

TOLOSA ▶ Arratsaldean hasi eta bederatziraino iraungo ditu txotxongiloen festak

TALDEAK ▶ 11 herrialdeko 31 konpainiek osatuko dute aurtengo egitaraua

BERRIKUNTZA ▶ UNIMAKo Munduko Kontseilua hartuko du jaialdiak lehen aldiz ▶ 2-3

NAIARA GARZIA



ABEL BARRIOLA ▶ PILOTARIA

«Estatistikek bost aldiz Olaizolaren aurka galdu dudala dioten arren, aurrera begiratu nahi dut»

Leitzarrak bihar jokatuko du Lau t'erdiko finalaurrekoa Beotibarren ▶ 7

ZIZURKIL ▶

Euskara eta bidaiak uztatu dituzte Euskal Herria ezagutzeko

Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren eskutik, 'Euskal Herrian Barrena' ▶ 6

GAUR Zinema Etxean 2

mantangorri 1. lekua

8 DVD euskaraz

berria

+ 4,50 €

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

Euskal Herriak
autodeterminazioa

Ekitaldi politikoa

Gaur
18:00etan

Villabonako Gurea zine aretoan

TOLOSA ▶ KULTURA

Bederatzi egun harietatik zintzilik

Gaur hasiko da 24. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia, hamaika herrialdetako 31 talderekin

M. SOROA-E. EZEIZA

Beste behin ere, Tolosako kaleak pozez, algaraz eta dizdiraz beteko dira. Gaur arratsaldean abiatuko da, eta bederatzik egun iraungo ditu 24. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdiak. Atzo goizean aurkeztu zuten egitasmoa Donostian. Bertan izan ziren: Jesus Mari Alkain, Kutxako Gizarte Ekintzako zuzendaria; Ana Arretxe, CIT-TEEko lehen-dakaria; Jokin Bildarratz, Tolosako alkatea; Francisco Lopez de Landetxe, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultur arloko zerbitzu burua eta Migel Arretxe, Txotxongilo jaialdiko zuzendaria.

70 herrialde inguruko ehun ordezkarri baino gehiagok osatutako UNIMAKo Munduko

Kontseilua ere hartuko du Jaialdiak. Hala, elkarte honen bizitzaren 79 urtetan lehen aldia da Munduko Kontseilua Euskal Herrian ospatzen dela. Gertakari honen aurrean, urtero herrialde jakin bateko Txotxongiloen artea erakusteko CIT-TEEK antolatutako ohi duen atal berezia aurtengoan Iberiar azentua duten txotxongiloek eskainiko diete. Hala, 2006ko jaialdia batez ere Iberiar kutsua duten antzezlanek zuzendua egongo da.

Egitaraua atzerriko hamaika herrialdetako 31 konpainiek osatuko dute, besteak beste: Argentina, Brasil, Bulgaria, Txekiar Errepublika, Venezuelak, Andaluzia, Aragoi... Hauxez gain, bost talde euskaldunek hartuko dute parte: Bihar txo-



Ezker-eskuin: Alkain, Bildarratz, Arretxe, Lopez de Larrebte eta Arretxe aurkezpeneari. E. EZEIZA

EGITARAUA ▶ EGUNEZ EGUN

GAUR

Leidor. Madrilgo La Mar de Marionetasek *Orfeo y Euridice* obra estreinatuko du 20:00etan. **Kultur Etxea.** Kubako El Mejunje taldearen *Cuca Martina (La Ratita Presumida)* antzezlan, 17:30ean.

BIHAR

Leidor. Bulgariako Varna

P. Theatre taldeak *Pulgarcita* lana eskainiko du 17:30ean. **Casino.** Bonecos de Sto. Aleixo talde portugaldarrak *Auto de la creacion* lana aurkeztuko du bi saiotan, 18:30ean eta 20:00etan.

Kultur Etxea. Behi Bis talde euskaldunak *Rosi Erosi* lana eskainiko du 12:00etan. **Hirukide (Jesusen Alaba).**

Euskadiko Teatro Paraiso taldeak *En el jardin* lana eskainiko du hiru urte bitarteko haurrentzat 16:00etan eta 17:30ean.

ETZI

Leidor. Euskal Herriko Pro-Isto Cero taldeak *Quizas el bosque* lana aurkeztuko du lehenengoz 12:00etan, 15:00etan eta 18:00etan.

Casino. El Mejunje talde kubatarrak *Cuca Martina (La ratita presumida)* lana aurkeztuko du 11:00etan, 15:00etan eta 18:00etan. **Kultur Etxea.** Teatro La Plaza talde brasildarrak *Revolucion en la cocina* lana aurkeztuko du 10:30ean, 15:00etan eta 17:00etan.

Ferialekua. Kukubiltxo talde euskaldunak *Argitxu eta Dir Dir* izenburupeko saioa eskainiko du 11:00etan eta 15:00etan. **Hirukide (Jesusen Alaba).** Euskadiko Teatro Paraiso taldeak *En el jardin* lana aurkeztuko du 11:00etan. Saio hau hiru urte bitarteko haurrentzat zuzendua dago.

AZAROAK 28, ASTEARTEA

Leidor. *La maleta de la abuela Enriqueta* antzezanarekin

etorriko da Ekuadorko La Espada de Madera taldea 12:00etan, 15:00etan eta 18:30ean.

Casino. Valentziako Los Duendes taldeak *El patito feo* antzezlan eskainiko du 11:00etan 15:00etan eta 18:00etan.

Kultur Etxea. *De Sombras y Sombrillas* lana eskainiko du Kolonbiako Hilos Magicos taldeak 10:30ean, 15:00etan eta 17:00etan.

Ferialekua. 11:00etan eta 15:00etan, *Pinotxo* antzezlan eskainiko du Bihar Tx. talde euskaldunak.

AZAROAK 29, ASTEAZKENA

Leidor. 12:00etan eta 15:00etan *Aventuras y desventuras de Perico de los Palotes* eskainiko du Costa Ricako Cucaramacara taldeak. 18:30ean *Pedro y el lobo* antzezlan izango da Andaluziako Titeres Etcetera taldearen eskutik.

Casino. Andaluziako La Gotera de la Azotea taldeak *La Gallina Churra* antzezlan eskainiko du 11:00etan, 15:00etan eta 18:00etan.

Kultur Etxea. *Pulgarcita* lana ekarriko du Bulgariatik Varna Pupp. Theatre taldeak 10:30ean, 15:00etan eta 17:00etan.

Ferialekua. Venezuelako Naku taldeak *Aguazul* lana eskainiko du 11:00etan eta 15:00etan.

AZAROAK 30, OSTEGUNA

Leidor. *Una luna entre dos*

casas antzezlan izango da Mexikoko Marionetas de la Esquina taldearen eskutik, 12:00etan, 15:00etan eta 18:30ean.

Casino. 11:00etan, 15:00etan eta 18:00etan *De Fabula* lana ikusgai Artello talde galiziarren eskutik.

Kultur Etxea. Argentinako El Nudo taldeak *Un tigre en el gallinero* antzezlan eskainiko du 10:30ean, 15:00etan eta 17:00etan.

Ferialekua. Txekiar Errepublikako Naive The. Liberec taldeak *El caballero sin cabeza* lana aurkeztuko du 11:00etan eta 15:00etan.

ABENDUAK 1, OSTIRALA

Leidor. 12:00etan, 15:00etan eta 18:30ean Venezuelako Naku taldearen *Aguazul* lana.

Casino. El Nudo talde argentinarraren *Un tigre en el gallinero* ikusgai 11:00etan, 15:00etan eta 18:00etan.

Kultur Etxea. La Gotera de la Azotea talde andaluziarrak *La Gallina Churra* antzezlan eskainiko du 10:30ean, 15:00etan eta 17:00etan.

Ferialekua. Mexikoko Marionetas de la Esquina taldearen *Una luna entre dos* casas antzezlan ikusgai izango da 11:00etan eta 15:00etan.

ABENDUAK 2, LARUNBATA

Leidor. *El hombre cigüeña* lana Aragoiko (Espainia) Tifiriteros de Binefar taldearekin, 17:00etan eta 20:00etan.

iragarki laburrak ▶

IKASTETXE PUBLIKOAK

Langileak behar dira. Garbitzaileak, sukaldariak, sukalde laguntzaileak eta atezainak behar dira. Telf.: 943 44 10 05.

UDALETXEETARAKO

LANGILEAK
Hainbat lanpostu. Lorezainak, elektrikariak, igeltseroak, operarioak, gidariak eta peoiak behar dira. Telf.: 943 44 10 05.

ZAINDARIAK

Museo eta artxiboetarako. Zaindari lanpostuak daude. Telf.: 943 44 10 05.

BEZERO ARRETA

Aireportuetan. Lanpostuak daude betetzeko bezeroen arreta sailean. Telf.: 943 44 10 05.

LASTER DEIALDIK

Lanpostu deialdiarako prestakuntza. Suhiltzaileak, udaltzainak eta ertzainak prestatzeko dokumentazioa eta klaseak. Telf.: 943 44 10 05.

ADMINISTRAZIO

PUBLIKORAKO DEIA
Plaza hutsak daude. Laguntzaile, administratiboak, liburuzainak, harreagileak, telefonistak eta informatikariak. Telf.: 943 44 10 05.

HEZKUNTZA MINISTERIOA

2/06 Lege Organikoko lanpostu deialdiak daude laster. Haurtzaindegiak, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza. Telf.: 943 44 10 05.

ELBARRITUAK

Lanpostuak. Lanpostu libre finkoak daude. Telf.: 943 44 10 05.

OSAKIDETZA

4.000 plaza libre. Erizain laguntzaileak, geriatría laguntzaileak, zaindariak eta laborategiko laguntzaileak. Telf.: 943 44 10 05.

GIDARIAK

Lanpostu finkoak. Gidariak behar dira lanpostu finkoak betetzeko. Telf.: 943 44 10 05.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Ford Scort 1800. 16v. 9 urte. Egoera ezinhobea. 687 22 57 07.

txongilo taldeak, Behi bis-ek, Kukubiltxok, Pro ismo cerok, Teatro Paraisok eta Taun taun teatroak.

Bestalde, 2009rako prest egongo den proiektu baten berri eman zuen Jokin Bildarratzek. Hala, Nazioarteko Txotxongiloen zentroa Tolosan kokatuko da. Hau, egun ez bezala, urte osoan irekia egongo da eta «Tolosa txotxongiloen munduan erreferente izatea ahalbidetuko du».

Tolosan bertan gauzatuko diren ikuskizunez gain, antzerki taldeek Gipuzkoako beste zenbait herritan ere eskainiko dituzte saioak. Lopez de Larretxeren esanetan, «Tolosa eredu-garria da kultur arloko ekitaldietan, eta hau, Gipuzkoako gainontzeko herrietara ere zabaldu nahi dute. Hala, eskualdeko saio bakarra Ibarra izango da. Gaur, Kultur Etxean, Cubako El mejunjerren *Cuca martina* antzezlan izango da ikusgai, 11:30ean. Saio bera, Tolosako Kultur Etxean ikusi ahal izango da 17:30ean.

Erakusketa berezia

Aranburu Jauregian ikusgai izango den erakusketa Iberiar Penintsulako txotxongiloari irekitako leiho bat izango da. Historian lehenengo aldiz muntatutako XVII. mendetik gure egunetarako penintsulako txotxongiloari buruzko erakusketa hain zabala eta sakona. Asteazken zehar arratsaldeak atekabali izango ditu erakusketak, eta asteburutan, egun osoan zehar.

Estreinaldiak

Edizio honetan bi estreinaldi izango dira. Madrilgo La Mar de Marionetasek, gaur 20:00etan, *Orfeo y Euridice* antzezlan taularatuko dute. Beste Pro-Istmo Zero talde eskualdunak eskainiko du. Hauek *Quizas el bosque* lana antzeztuko dute. Obra honek joan den urteko testu onenaren saria irabazi zuen, eta aurtengo Gasteizko txotxongilo taldeak taularatuko du.

IBARRA ▶ KULTURA



Saharar kulturara bidaia henna artean

Maddi Soria ▶ Ibarra Kultur Truke Hamabostaldia baitaurrentzako henna tailerra antolatu zuen Sahara Bizi Tolosaldea Sahararen elkarteak herenegun Kultur Etxean. Bertan izan ziren Tolosaldean bizi diren saharar emakumeak saharar kulturarako bidaia eskaintze-

ko. Haurtxoei henna tatuaiak egin zizkieten, helduentzat, berriz, tea eta pastak izan zituzten opari. Kulturantzatasuna hedatzeko bidean pauso handia izan zen atzokoa, bai haurtxoei bai eta helduek ere saharar kultura eta bertako egoera politikoa ezagutu baitzituzten. M.SORIA

Kultur Etxea. Murciako (Espainia) Periferia Teatro taldeak *Pocosueño* lana eskainiko du 12:00etan eta 17:00etan.

Ferialekua. *El caballero sin cabeza* lanaren aurkezpena Naive The Liberec Txekiar Errepublikako taldearekin 18:30ean.

ABENDUAK 3, IGANDEA

Leidor. *Piratas* lana ikusgai Madrilgo La Tartana taldearen eskutik, 17:00etan eta 20:00etan.

Kultur Etxea. Castilla Leongo (Espainia) Alanimok *Baku y los adultos* lana eskainiko du 12:00etan eta 17:00etan.

Ferialekua. Mexikoko Emmanuel Marquez taldearen *El caso mas dificil* lana ikusgai 18:30ean.

HELDUENTZAKO SAIOAK

Etzi. Mexikoko Alfin Teatro taldearen *Alfin Frida* lana

20:30ean eta 22:30ean Ferialekuan.

Azaroak 28, asteartea. Mexikoko Emmanuel Marquez taldearen *El caso mas dificil* lana 20:30ean eta 22:30ean Ferialekuan.

Azaroak 29, asteazkena. *Batuta* antzezlan 20:30ean eta 22:30ean Taun Taun Teatro talde eskualdunekin, Ferialekuan.

Azaroak 30, osteguna. Andaluziako (Espainia) La Canela taldeak *La salida* antzezlan eskainiko du 20:30ean eta 22:30ean Ferialekuan.

Abenduak 1, ostirala. Eugenio Navarro talde kataluniarak *Melodama* antzezlan eskainiko du 20:30ean eta 22:30ean Ferialekuan.

Abenduak 2, larunbata. Gus Marionetas eskaldunen *La Inauguracion* lana ikusgai 21:00etan Casinon.

LEABURU ▶

Txapela eskuratzeko aukera izango du Arrospidek

ERREDAKZIOA

Bihar amaituko da Egur Sporten Nazioarteko Aizkora Lehiaketa Azpeitiko Landeta auzoko kiroldegian. Bi saiotan ariko dira aizkolariak, 17:00etan eta 23:00etan, hain zuzen.

Anjel Arrospide sei probatan lehiatuko da eta saio horietan lorturiko puntuak aintzat hartzen direnez, aukera handia izango du leaburuarak txapela eskuratzeko. O'Toole australiarra baino hobeto aritu beharko du, ordea.

IBARRA ▶ HEZKUNTZA

Uzturpeko ohiko urteko batzarra asteazkenean

Hainbat gai landuko dituen batzarra 20:00etan izango da Areto Nagusian

ERREDAKZIOA

Uzturpe Ikastolako Errektore Kontseiluak urteko ohiko batzarerako deia egin du datorren asteazkenean (azaroak 29). Batzarra, 20:00etan izango da Ikastolako Areto Nagusian.

Batzarrean jorratuko diren gaiak honako hauek izango dira: Errektore Kontseiluko Lehendakariaren aurkezpena, akta onartuko duten bi lagunen aukeraketa, ekonomia:

balantzea eta aurrekontua, 2005-2006 ikasturteko guraso inkesten emaitzak, 2006-2011 estratategia plana, ikasturteko hobekuntzak, batzordeen urteko plana eta galdera-eskeak.

Ikastolako kide guztiak elkartuz, ikastolako berriak ezagutzeko aukera ederra delakoan, Uzturpe Ikastolako guraso eta langileak elkartzeko dei zabala egin du Errektore Kontseiluak batzarrean parte hartuz.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztiaren prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

urteurrena ▶

HIRUGARREN URTEURRENA

Xabier Urdangarin Agirre

2003ko azaroaren 21ean istripuz hil zen, 19 urte zituela.
—Golan bago—

Gure ametsak zure loari muxu bat bidaltzen dio.

Gurasoak, anaia eta gainerako ahaideak.

Haren oroimeneko meza GAUR, larunbata, arratsaldeko ZAZPIETAN izango da, Lazkaoko San Miguel elizan.

LAZKAO, 2006ko azaroaren 25a

GIZARTEA >

Bakoitza bere estetikaren bila

Ileapaindegietan eta estetikaz zentroetan gizonetakoak ia emakumeak beste birgiztatu diote euren buruari; guztiak bere estiloa aurkitzen saiatzen dira



Berko prentsa arrosko aldizkariaren gain, hainbat eskaintza dituen ziber ileapaindegia. ENERITZ MAIZ

ENERITZ MAIZ

Jantzi eta osagarriez gain, ileak zeresan handia du gure iburari. Forma, kolorea eta estiloa asko zaintzen ditugu. Honekin ziber ileapaindegiko lanaldiekin izan gara eta beraien esanetan, ezez dago estilo bat, bestearen gainetik azpimarratuko gurenik. Denetarik diago, eta garrantzitsuena bezeroaren beraren estiloa ezagutzeta da. Bakoitzak bere estiloa du, eta horri eutsi behar diogu, bezeroa gustura utziz.

Bezeroen artean, denetarik diago eta kortsuak ditugue «Batuak garbi dute zer nahi duten, hau da, beren betiko estiloa mantentzea. Beste batzuk aldir, gure esku utzen dute eta beren estiloarekin bat egin eta hobekien dagokien orrazkera proposatzen diugu.

Mozte formetan ezuzta nahiz motza izan daitezke, denetik dago asimetria asko egiten da, baina irregularrak eta ausartak direnak ere. Kolore aldetik, argiak edo ilunak izan daitezke

INMA ENSAOLA > SHUYANA EDERGINTZA ARDURADUNA

«Fotodepilazioak ilearen %80a baino gehiago deusezten du»

Betiko depilatze sistemaz gain, duela zazpi urtekin, laser bidezko depilazioa eskaintzen dute Shuyana edergintzan. Depilazioaren alorrean, estetikak nola aurreratu duen azaldu digu Inma Ensakak.

Zer da eskaintzen duzue? Era guztietako depilazioak ditugu, argiaz hozt eta benetarekin, elektrikoak, eta orain bertzealeena, fotodepilazioa dugu bere emaitza onengatik. **Eta zer da zehazki fotodepilazioa?** Laser bidez egiten den tratamendua da eta ilea desagertatzen du. Horrela, ilearen sus-

traia iri jaiotzeko gaitasuna kentzen du. **Nolako da laso beharrekotratamendua?** Lehenik eta behin, bezeroarekin hitz egiten da eta, bere azala eta ilea aztertzen dira prebentzio bat eginez. Azala, kolorea eta ileak baldintzatzen du hartu beharrela saioen kopurua. Eta depilatzen den lekuan araberak ere aldatu egiten da gorputza edota aurpegia da. **Zein azal edo ile da kasu honetan obarena?** Azalrik egokiena turria da eta ilea, aldir, hobe da, iluna izatea

eta lodia. Horrela laserrak erraz harrapatzen du ilearen mutina. Horregatik, geratzen den ile apurra hori-zuria izaten da. Eta orokorrean, jendea iri es di axolarik izaten. **Zein da lortzen den emaitza?** Depilatzeak, tratamendua bukatu ostean, tratatu den lekuko ilearen %80e edo gehiago deuseztatzen du. Eta geratzen den ile apurra, ia ikusteazina da, lehorria eta fina. **Zein ohantilla ditu?** Beste tratamenduekin alderatuta eroso da. Matxasunaren aldetik, 2 hilabete pasa ditzake saio batetik bestera eta bi-

zar-xafia pasa dezakezu eta ez duzu ilea hazi zain egon beharrik. Erabakorrean, emaitza da, erabakoa. **Segurua da?** Bai. Depilatzei erabiltzen dugun gurutik surzei prestatuak gaudete eta lana, arreta eta segurtasun osoz egiten da. **Azken berrikuntzarik sartu da?** Bai, orain aknesari aurre egiteko laser bidezko tratamendua dugu. Hamen ere, pertsonetan araberak saioen kopurua ezberdina izango da eta saio bakoitza zuzen edo hamar eguneko tartesaz hartzen da. 4

ENERITZ MAIZ

depilazioa

5 sesiotako bonoa erosi ezkerre, Afterfaserra kurtuko duzu


DOAN

Baliozko promozioa azaroaren 21etik abenduaren 31era

140€ 55€ 85€

Shuyana Edergintza • Tel.: 943 67 54 89 • Eskolapietako Lorategiak, 3-1A • TOLOSA

baina, beti ere, naturalak izango direlarik. Inoiz ez da kolore bakarra erabiltzen, kontrasteekin jolastzen dugu, adibidez, kolore ilun batean, metxa argiagoko tartekatuz.



Emakumeak arropa koloretuekin jolatu auzera badi udazken honetan; oinetakoetan, aldir, kolore ilunetakoak dira ugariak. E. MAIZ

Soinean, erosotasuna nagusi

Gizonetakoetan, jantzi erosoak eta emakumezkoetan soinekoak eta pitillozko galtzak dira salduenak; Oinetakoetan, estilo urbanoa da nagusi, kirol itxurakoak eta botak

E. MAIZ

Udazkenean sartuak bagaude ere, aurrera, eguraldiari kosta egin zailo tenperatura jantzi eta auria botatzen hastea. Honek ondorioz, duela gutxi arte, udako arropa eta oinetakoekin ibili gara.

Gizonetakoetan, urtekin urtera, emakumeetan bezalako aldirak erabiltzen dira. Nerebetan, galtza zabalak eta letratu elastiko koloretuak dira erabiltzenak. Helduagoez, estilo urbanoa aukeratu dute, betiko galtza bakero, jertze eta nikien aldeko apustua egiten. Kolore marroia da aukeratuena.

Emakumearen joeraren berri izateko, Arkupe dendak Amaia Imazekin izan gara.

Gehien salzen ari den guzuzen artean, soineko izanak daudela, azpimarratu digu; bere horretan edota galtza eta jagggingen guztian janzteko. Gertukoak diogonien, aurreko urtean ez bezala, operian bertan erabiltzekoak dira nagusiak. Gona eta pitillo formako galtzak ere asko salzen dira eta jendeak moda asko jarritzen duela nabari da orain arte galtza zabalak izan dira nagusiak eta zuzen ustean hain azkar sartuko zirenik pitillozko galtzak, baina jada uste baino jende gehiagok erabiltzen ditu. Koloretan, egotri eta berde biziak datoz ilunak alaitzera eta zur-beltza ere dezente. Marroia inoiz baino gutxiago. Osagarrietan aldir, bolasa handiak edota eskuan eramatekoak dira, larru eta

Botak nagusi

Arropaz aparte, oinetakoak ere, berebiziko garrantzia dute jantzerako ordutan. Aurtengo neguan, kirol itxurakoak izango dira nagusi. Lizarribar zapata dendako arduradun araberak. Gizonetakoetan, orokorrean, kirol itxurako oinetakoa da nagusi. Moda jarraitzea gustatzen zaiela adierazi digute eta

kalitatea eta erosotasunari begiratzen diotela ghehenek. Kolore aldetik, ilunak dira nagusi urtero bezala, nahiz eta aldirak berriz kolore bizirik ere gustatzen zaizkien. Emakumezkoetan, etakoak ia desagertzen ari dira. Oso jantziak ez baduzte nahigo dituzte erosoagoak diren oinetakoak, gero eta garrantzi handiagoa du erosoitasunak eta gero-terekin oinetakoak dira salduenak. Koloreen artean, beltza eta marroia dira nagusi, baina aurrera sartu dira larru metalizatuak da, urre eta zilar itxurakoak. Bestetik, botak dauka, aurrera inoiz baino gehiago art para salzen. Jendeak, nahiz eta hotza eta euria egin, galtza piratalk eta gonak, asko jarritzen dituzte.

Arkupe

ILEAPAINDEGIKO ZAIK

ERKINTZA

KOLAKO, 40 • TOLOSA

TEL: 943 11 70 32

Marek

ERKINTZA

Santa Maria, 9

TOLOSA

943 67 19 30

'ZURE UMEEN DENDA'

sehaskak • eguzkitakoak • segurtasun ahulkiak

zakuska • mandulak • ohe estalkiak

BICARBO • BEBECOMFORT • QUINN • INGLESI • BEBECAR • JANE • MAAMI • COSI • CASUALPLAY • STOKKE

San Francisco, 39 • TOLOSA • Tel.: Fax: 943 65 22 38

Zute

Arrosategiaren kalera • TOLOSA

LIZARRIBAR

OINETAKOAK

Arrosategiaren kalera • TOLOSA

honetekin?

943 67 22 44

Santa Maria plaza, 1 • TOLOSA

GIZARTEA ▶

Euskara eta bidaiia uztartuz, gure herria ezagutzeko aukera

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak 'Euskal Herrian Barrena' egitasmoa aurkeztu du, 18-30 urte bitartekoentzat

IMANOL GARCIA

«Euskal Herria ezagutzen duzula uste duzu?». Galdera horrekin aurkeztu du Manuel Larramendi Kultur Bazkunak *Euskal Herrian Barrena* egitasmoa, 18 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzenduta. Datorren urterako zortzi txango antolatuta dituzte, hilean bat, otsailen hasi eta irailera arte. Euskal Herri guztian zehar.

Egitamoa bi helburu dituela zehaztu du Jon Unanuek, Kultur Bazkuneko lehendakaria: «Alde batetik, Euskal Herria bertatik bertara ezagutzeko. Askotan hitz egiten dugu Euskal Herriaz behar bezala ezagutu gabe eta oso garrantzitsua iruditzen zaigu guri ezagutza hori izatea euskara suspertzeko lanean. Bestalde, euskara hutsuz egingo da eta batez ere adin lagin horretan egiten da bizitzan erabiliko duzun hizkuntzaren hautua. Horrela, euskararen erabilera suspertu nahi dugu gazteengan».



Jon Unanue eta Iosu Zumeta, atzoko prentsaurrekoan. I. GARCIA

Ekimenaren arduraduna den Iosu Zumeta izango da parte-hartzaileekin joango diren bi gidetako bat. Asteburu osoko txangoak dira eta ondorengo lekuetara bidaiatzeko aukera izango da: Txingudiko badia, arabar Errioxa, Gasteiz, Urdaibai, Lizarrako lurraldea, Aralar, Orreagako ingurua, Lapurdiko barnekaldea eta kostaldea, Pirinio ingurua eta Nafarroako hegoekialdea. Asteburu bakoitzak 50 euro balioko ditu. Prezioan bidaiia, ostatu eta

egitaraua burutzeko gastu zuziak barne hartzen ditu.

Izena emateko epea abenduaren 21ean amaitzen da. Aduna, Andoain, Asteasu, Larrraul eta Zizurkilen erroldaturik daudenek izango dute lehentasuna denen artean. Informazio gehiago jasotzeko, Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko Zizurkilgo (943 69 64 50) edo Andoaingo (943 30 07 33) egoitzetan edo txangoak@topagunea.com posta elektronikoa.

PILOTA ▶

Infantilen arteko partidak Alegiako Elorri frontoian

Alegiako Elorri frontoian Gipuzkoako Infantilen Txapelketaren baitan partidak jokatu dira. 16:30ean hasita, neurketa hauek izango dira: Kuku-Behar Zana 1; Intxurre 1-Aurrera Saiaz 2; Gazteleku-Aurrera Saiaz 1 eta Erniope-Intxurre 2.

AIZTONDO ▶

Argazki Rallyaren sari banaketa eta erakusketa

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta zuten Argazki Rallyaren sari banaketa egingo dute gaur, Larraulgo kultur etxean, 18:00etan. Argazkien erakusketa ere egingo dute leku berdinean. Gaur eta bihar, 17:00etatik 19:00etara.

VILLABONA ▶ ERREBOTEA

Lehenengo partidaren 125. urteurrena

Villabonan ezagutzen den erreboteko lehenengo norgehiagoka 1881eko azaroaren 20an jokatu zen. Beraz, pasa den astelehenean 125 urte bete dira partida hartatik. Behar-Zanako 50. urteurrena ospatzeko argitaratu zen Francisco Arratibelen *Pilotaren Historia Billabonan* liburua honen berri ematen du eta garai hartako egunkari batzuetako kronikak ere jasotzen dute. Neurketa hartan billabonatarrek donostiarrei irabazi zieten, 14 eta 6. Urteurren hau ospatzeko Behar-Zana Kirol elkarteak erreboteko partida bat antolatuta du. Eguraldiak baimentzen badu gaur jokatu dute. Orain dela 125 urte legez, 11:00etan izango da. Billabonatarrek aurrean Oartzungo taldea izango dute.

IKAZTEGIETA ▶

Tutorearen bisita, etzi, herriko KZgunean

Ikaztegieta KZgunean tutorearen bisita izango dute etzi, 16:00etatik 20:00etara. Mintegi bat eskainiko du tutoreak, *Mikologia*, *Iberdrola* izenekoa. Mintegiaren orduetgia 17:00etatik 19:00etara izango da.

VILLABONA ▶

Koro Saenz organojolearen kontzertua, gaur

Donostiako San Bizente elizako organo jotzaile titularra den Koro Saenzek kontzertua emango du gaur Villabonako Jesusen Bihotza parrokian. Meza bukatu ondoren, 19:45ak aldera, hasiko da emanaldia.

BERRIaren upeletik ardo aparta

REMELLURI 2001. urteko ERRESERBAko ardoa

Zuretzat edo nahi duzunari oparitzeko!

Eskatu orain, eta zuzenean eramango dizugu nahi duzun lekura: - Zure etxera.
- Oparitu nahi diozun lagunaren etxera edo lantokira.



3 BOTILAKO KUTXA 39 €
6 BOTILAKO KUTXA 78 €

ESKAERA EPEA: azaroaren 27a arte
ESKAERAK EGITEKO: 943 30 43 45

BIDALKETA GASTURIK GABE

AUKERA EZAZTU, BIZI EUSKARAZ **berria**



Ibarrako udala biolentzia generikoaren aurka

Ibarrako udala • Euskara zerbitzua

Irurako udala



Biolentzia generikoaren aurka

Mikel goi aingeru plaza, 1

943 69 13 33

POLITIKA ▶

18/98ren
aurkako
autoinkulpazio
kanpaina

ERREDAKZIOA

1898an Emile Zola idazleak Dreyfus kasuaren aurrean erakutsi zuen konpromezu politikoa oinarritzat hartuz, eta berak ordungo Frantziako presidenteari bidalitako gutun bateko esaldi ezagunarekin oinarrituz, *J'accuse* (nik akusatzen dut) autoinkulpazio kanpaina jarri dute martxan Euskal herrian. Leitzan, gaur, 19:00etatik 21:00etara, eta igandean, 12:00etatik 14:00etara sinatu ahalko da Oialde parean.

Txostenaren lehenengo zatian botere publikoak eta Audientzia Nazionala salatzen dira. Bigarrenean, berriz, norberak bere burua akusatuko du, auzipetuak oinarritzko eskubideak erabiltzearen ondorioz epaituta daudela salatzen.

TELEFONOAK ▶

Larrialdia. ((112))
Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdia)
 - ▶ **DYA:** 672536
 - ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
- ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
- ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

ABEL BARRIOLA ▶ PILOTARIA

«Estatistikek Olaizolaren aurka
5 aldiz galdu dudala esan arren,
nahiago dut aurrera begiratu»

Leitzarrak eta goizutarrak bihar, Beotibar pilotalekuan, jokatu duten partida erabakiorra izanen da, irabazlea finalera pasatuko baita

NAIARA GARZIA

2006ko Lau t'erdiko Txapelketako finala gertu dago. Honaino iristeko partida asko jokatu dituzte pilotariek. Asteburu honetan bi jokatu dira, baina gaurkoan, Titin eta Mtnez de Irujoren artekoan ezer erabakitzen ez denez, biharkoan, Olaizolaren eta Barriolaren artekoan daude jarrira begi guztiak.

Lau t'erdiko Txapelketan 5 aldiz jokatu duzu Aimar Olaizolaren aurka. Beti galdu duzula eta prentsak estatistikari aurre egin beharko diozula dio. Zer iruditzen zaizu?

Berak orain arte irabazi badit edo ez badit, azkenean hori pasatutako gauza da. Ez dut uste honek partida bat irabazi edo galduaraziko didanik. Nik uste igandera begira ongi nagoela eta horri begiratu behar diodala. Estatistikek Olaizolaren aurka 5 aldiz galdu dudala esan arren, nahiago dut aurrera begiratu eta ez iraganetik bizi.

Material hautaketa egin zenuen ostegunean, eta jende asko hurbildu zen bertara. Zer iruditzen zaizu partidak sortu duen ikusmina?

Gaurko Titin eta Martinez de Irujoren arteko norgehiagoka jokatu beharreko partida bat da, ez da deus ere erabakitzen. Gure partidari, berriz, irabazlea finalera joan da eta galitzen duena, etxera. Baina egia da ikusmin handia dagoela. Nik final bat baino gehiago jokatu ditut, baina ez dakit inoiz halakorik ezagutu dudana. Jende asko joan zen Beotibarrera



M. SORROA

ostegunean, beheko bi solairuak bete ziren eta hori seinale ona da. Guk orain gurea egin behar dugu, eta ikuskizuna ematen saiatu. Ni irabaztera aterako naiz.

Aimarrek zureak baino pilota motelagoak aukeratu zituen. Material hautaketarekin gustura gelditu al zinen?

Bai. Aimarrek pilota geldoak aukeratzeko ditut beti, denbora ematen dutenak. Bera ez da golpe biziko pilotaria. Beti tantoa luzatzen saiatzen da, eta aukera duenean, amaitzen. Nik, berriz, azpitik ibiltzen di-

ren pilotak aukeratzeko ditut, abiadura emateko.

Zeintzu dira Aimar Olaizolaren dohaiak?

Tanto luzeak eta aireko jokua. Tantoa luzatuz, aurkaria nekarazten du, eta tantoa bukatzen ere oso iaioa da.

Olaizola fondoko pilotaria dela kontutan hartuta, eta zu, berriz, azkarra, nolako izanen da igandeko partida?

Normalean Aimarren kontra partida luzeak ateratzen dira. Ez da botera hausten zaituen pilotari bat, jokatzeko zuten zaitu. Sakea eta erretoa oso ga-

rrantzitsuak izanen dira, eta bita tantoa errez ez galtzea eta erasoan asmatzea ere. Nik uste igandean bakoitzak berea ematen badu partida luzea eta gogorra izanen dela.

Aimar favorito izatea zuretzako presio bat al da?

Ez dut horretan pentsatzen. Urtebete egondu naiz eskuetatik gaizki, ebakuntza bat egin zidaten eta gaizki ateratu zen. Gauzak hain ilun ikusi ditut... partidu bakoitzetaz disfrutatzen saiatzen naiz orain eta dudana guztia ematea da nire helburua.

Aimar kantxan hotza eta segurua dela esan duzu.

Mentalitatez irabazlea da eta normalean beti bere lana ongi egiten du, horregatik iritsi da dagoen lekura. Teknikoki ere dohain onak ditu eta buruz pilotari hotza da. Ez du arriskua gustuko, gauzak zuzen egitea gustatzen zaio.

Eta zu kantxan nolako zara?

Nik beti emaitza hobekak lortu ditut partidu buruz hotz jokatu dudanean, buruz hotz eta gorputza bero. Nire jokatzeko modua ez da besteei zer egiten duten itxarotzea, iniziatiba nik hartzea baizik: erriatua nik jartzea eta tantoen gora-behera neronek kontrolatzea.

Aurtengo ligaxkan maila altuagoa dela diote. Zuri zer iruditzen zaizu?

Ikusmin aldetik aurten gehiago izan da, hiru aurrelariak (Titin, Irujo eta Aimar Olaizola) frontoira jende gehien eramanen dutenak direlako, alde batetik, eta bestetik, partiduetan ere onak ateratu direlako.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

ARAMBURU

Salgai (Tolosa), Pisu Laskorain 3, kalean, Salgai (Tolosa),
Ileapaindegi egokitu lurren.
Salgai (Tolosa), Belardenda, kale Nagusian, negozioa martxan.
Salgai (Tolosa) lurren).
Ofizinarako, klaseak emateko, etab. lokal bikia, oso modu onean.
Salgai (Tolosa), Lokalak Enperadore kalean eta kale nagusian,
Salgai, Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibarra.
Salgai (Tolosa), Garajeak, Leidor azpian.
Alokatzeko, Garajeak, Araba etorbidean eta Baxiller Zaldibian (geltoki ondoan).
Alokatzeko, Lokalak, Arbol de Gernikan, Allin eta Laskorain kalean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

BANAKETA ENPRESA batek
banatzaileak behar ditu, Tolosaldean.

Lan-baldintzak:

- Astean sei egun. Asteartetik igandera.
- Bi aste lan eta bat jai.
- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 04:00etatik 08:00etara.

Ezinbestekoa da autoa izatea

Astelehena, azaroak 27, deitu telefono honetara
943 30 43 41

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Autodeterminazioaren aldeko ekitaldia: 10:00etatik aurrera, EHNA egiteko aukera, trikitilariak, bertso bazkaria; 18:00etan, kalejira, eta 23:00etan, kontzertua gaztetxean.

Tolosa. Tolosako autodeterminazioaren aldeko taldeak antolatuta, 12:00etan estropadak, bertsolariak eta dultzaineroen saioa.

Ikaztegieta. Kultur Astearen baitan, *Asto bat hipodromoan* antzezina, 18:30ean liburutegian.

Tolosa. Ahotsak Plataformak sinadura bilketa egingo du, 11:00etatik 13:00etara, Triangulon. Abenduaren 2an Euskalduna Jauregian egingo den ekitaldiari buruzko informazioa emango dute.

Tolosa. Gerontologikoaren Aldeko Plataformak 10:00etatik 13:30era mahai informatiboa jarriko du Triangulo plazan.

Vilabona. 18:00etan, txalapartariak, hitzaldia, barrikotea... autodeterminazioaren aldeko ekitaldian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leizta. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza agurren tartea

URTE ASKOAN
 Neska goxo hoiakoa.
 Zorionak zure lankideen partetik!



URTE ASKOAN
 Gaur Beriatek urte bat eta birraitona Mielek, 83. Zorionak bioi! Zein ote da bihurriagoa...! Etxekoien partetik (Asteasu/Tolosa).



ZORIONAK
 Haritz Aranzegi.
 Segi beti bezain xarmant!
 Admiradora bat.



ZORIONAK
 Nagore eta Gorka Zabala Luluaga (Ibarra). Gaur 11 urte Nagorek, eta Gorkak aurreko larunbatean 4 urte. Ondo ondo pasa eta muxu handi bat aitaxo eta amaxon partetik.



URTE ASKOAN
 Inaxi Agirrezabala (Ugarte).
 Gaur 84 urte. Ondo pasa eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.




Hodeitruk abesbatza Chillida-Lekun

TOLOSA ▶ Hodei Truk gazte abesbatza Chillida-Lekun egon zen iragan igandean. Haurren Eskubideen Nazioarteko Eguna dela eta, gonbidatua izan zen bertan antolatuta zituzten ekintza berezietan parte hartza. David Azurza abesbatzako zuzendaria idatzitako *Bi aire* lana estreinatu zuten gazteek. Lehen kanta, *Larre berrian*, 750. urteurrena dela eta Tolosako doinu zahar batean oinarritua da, eta bigarrena, *berri*, *Orbelak airez aire* deiturikoa, beste doinu herrikoi batean oinarriturikoa. HITZA



URTE ASKOAN
 Maikel Dedios (Amarotz). Astelehenean 25 urte. Tolosaldeko neska guztien partetik. Zorionak torero! Hi bai haola harri inda!



URTE ASKOAN
 Maddi (Tolosa). Gaur 6 urte. Zorionak eta muxu asko familiaren partetik.



URTE ASKOAN
 Andoni Artola Beloki (Anoeta).
 Gaur 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat gurasoen eta anaiaren partetik.

2006ko azaroak 30
 50ALETXEKO OSORO BILKUREN ARETOKA

topaketak encuentros

Herritarentzako: 943 42 80 86
 Egoitza: estrategiak@donostiafora.net
 Egoitza: www.donostiafora.net

Euskal Euroeskualdeko hiriak: Proiektu eta erronka komunak

Donostiako Plan Estrategikoak VI. Encuentros-Topaketak antolatuta ditu. Ekimenaren helburua hiri bakoitzeko proiektu estrategikoak aztertzea da, eta Donostia, Bilbo, Gasteiz, Diarritz eta Baionako alkateek eta hiri horietako plangintza estrategikoaren arduradunek hartuko dute parte bertan.

Donostia Plan Estrategikoak VI. Encuentros-Topaketak antolatuta ditu. Ekimenaren helburua hiri bakoitzeko proiektu estrategikoak aztertzea da, eta Donostia, Bilbo, Gasteiz, Diarritz eta Baionako alkateek eta hiri horietako plangintza estrategikoaren arduradunek hartuko dute parte bertan.

9:30 AURREZPENA - BURSIZAHAI ONGIETORRIA
 Odón Elorza Jr.
 Donostiako Udaleko Alkatea

ALKATEEN HITZALDIAK

9:15 Iñaki Araso Jr. - Bilbo Udaleko Lehen Alkateordea
 10:00 Odón Elorza Jr. - Donostiako Udaleko Alkatea
 11:15 Alfonso Alonso Jr. - Gasteizko Udaleko Alkatea
 12:00 Iñaki Borotra Jr. - Biarritzko Udaleko Alkatea
 12:45 Jean-Paul Elcheguy Jr. - Premier Adjoint au Maire de Bayonne
 13:30 **ETZANBIDA** (Goletoak salatzeko amaiera: 14:00)

PROIEKTUEN AZALPENA

16:30 **BAYONNE**
 Bernard Lesbats Jr. - Projektu Urbainen Zuzendaria
 17:10 **BILBO**
 Alfonso Martínez Jr. - Bilbo-9803 Plan Estrategikoaren Zuzendaria
 17:50 **GASTEIZ**
 Juan Castro Jr. - Gasteizko Plan Estrategikoaren Zuzendaria
 18:30 **DONOSTIA**
 Egoe Korta Jr. - Donostiako Plan Estrategikoaren Zuzendaria
 19:10 **ONDORIOAK**
 19:30 **Jardunaldiaren amaiera**